

ESKUBIDEAK

Antolaketarekin eta kudeaketarekin lotutako eskubideak

- Printzipio hauek izateko eskubidea: **unibertsaltasuna, elkartasuna, zuzentasuna, gardentasuna**, zerbitzuen **kalitatea eta herritarren parte-hartzea**.
- Pertsonen osasun-beharretara **egokitutako osasun-sistema eraginkor bat** izateko eskubidea.
- **Kexak, erreklamazioak nahiz iradokizunak egiteko** eskubidea.
- Pertsonen **hizkuntza-eskubideak** bermatuak izateko eskubidea.

Osasun-politika espezifikoetarako lotutako eskubideak

- **Osasuna sustatzeko eta gaixotasunari aurrea hartzeko** eskubidea.
- **Bizitzaren fase desberdinetan osasun-laguntza egokia jasotzeko** eskubidea:
 - **Sexualitatea eta ugalketa.**
 - **Haur eta nerabeen** arreta espezifikoa.
 - **Adinekoei** etxe- eta komunitate-inguruneetan laguntzea.
 - **Bizitzaren bukaeran** arreta integrala jasotzea, pazientearen autonomiari eta borondateei begirunez.
- **Pertsona kalteberenek babes berezia** izateko eskubidea: hau da, nahasmendu mentala dutenak, genero-indarkeriaren, tratu txarren, abusu sexualen eta babesgabeziaren biktimak, desgaituak, egoera irregularrean dauden immigranteak, gizartetik baztertuta edo baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak, eta transexualak.
- **Gaixotasun arraroak** dituzten pertsonen laguntza espezifikoa jasotzeko eskubidea.

Norberaren osasunaren kudeaketan parte-hartze arduratsua izateko eskubideak

- **Informazioa eta osasun-datuen kopia** lortzeko eskubidea.
- Legezko baldintzak betez gero **osasun-txartel indibiduala** eskuratzeko eskubidea. Txartelak honetarako aukera ematen du:
 - **Bigarren iritzi bat** jasotzeko eskubidea.
 - Ohiko **sendagilea** eta pediatra **aukeratzeko** eskubidea.
 - Osasun-laguntza arreta jasotzeko ezarritako **epeen** barruan lortzeko eskubidea.

Asistentzia-harremanetako eskubideak

- **Begirunez** eta **segurtasun- eta konfiantza**-giro batean artatua izateko eskubidea.
- **Egiazko informazioa** jasotzeko eskubidea, bai eta edozein ebakuntzarako **baimena aske eta borondatez** ematekoa ere.
- Norberaren osasunari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea, dela zuzenean, dela **aurretiazko borondate** bidez.
- **Tratamenduari uko egiteko** eskubidea.
- **Segurtasun kliniko**a izateko eskubidea.
- Norberaren **intimitatea** eta **konfidentzaltasuna errespetatua izateko** eta **datu** pertsonalak **babestua** izateko eskubidea.

Osasun publikoaren arloko eskubideak

- **Gizarte mailako osasun-arazoaren inguruan informazioa jasotzeko** eskubidea, osasun publikoarentzat nahiz norbanakoaren osasunarentzat arriskutsuak direnean.
- **Osasun publikoko jardueretan eraginkorki parte hartzeko** eskubidea.

BETEBEHARRAK

Pertsonen betebeharrak antolaketari eta kudeaketari dagokienez

- Eskaintzen diren **baliabide eta prestazioak egoki, norberaren beharren arabera, erabiltzea**, eta ikusitako irregulartasunen berri ematea.
- **Instalazio eta ekipamendu sanitarioak zaintzea.**
- **Osasun-zentroetan eta -zerbitzuetan**, osasun-prestazioak eta -baliabideak eskuratzeko eskatzen diren **agiri ofizialak aurkeztea.**
- **Antolaketako eta segurtasun klinikoko kontuetan laguntzea.**

Osasun-politika espezifikoetarako betebeharrak

- Gaixotasunak prebenitzeko helburuz **biztanleria osoarentzat ezartzen dituen osasun-arauak eta -jarraibideak betetzen** laguntzea.
- Osasun-agintariei **jakinaraztea** biztanleriaren **osasunarentzat arrisku bat edo arrisku larri bat izan daitekeen edozein gertaera**, datu edo egoera.
- Norberaren bizitzako etapetako osasun-arreta espezifikoan **aktiboki eta arduraz parte hartzea**, eta pertsona ahulentzako programa bereziekin lankidetzan jardutea.

Norberaren osasunaren eta erabilgarri dauden osasun-baliabideen kudeaketan parte-hartze arduratsua izateko betebeharrak

- **Norberaren osasunari buruz hartutako erabakiak onartzea eta horien erantzule izatea.**
- Profesionalek adierazitako eta borondatez onartutako **osasun-aginduak** eta -neurriak **betetzea.**
- **Historia klinikoko informazioa** eta erabiltzen diren dokumentu sanitarioak zuzen erabiltzea.

Asistentzia-harremanetako betebeharrak

- **Leial eta egiati ematea norberaren** identifikazioari eta norberaren egoera fisikoari edo osasunari buruzko **datuak** eta datu horiek lortzen laguntzea.
- **Osasun-erakundeetako langileak**, beste pazienteak eta haien laguntzaileak **begirune handiz eta ahalik eta adeitsuen tratatzea.**
- **Norberaren ardurapean dauden pertsonen bizi-nahien inguruko erabakiak hartzeko arreta, zainketa eta informazioa ematen laguntzea eta bizi-nahi horiek errespetatzea.**

www.euskadi.eus helbidean kontsulta daiteke Adierazpen osoa.

